

CHO OYUN ORDUTERDI BATEZ

Amaia Arantzabal

RAILAK 24a da, gaur ez da irten oso eguraldi onik Cho-Oyuko Oinarrizko Kanpamenduan. Medikuak esan bezala oinak ur epeletan sartuta ditugu helikopteroaren burruna entzun dugunean. Ohartzeko denbora izan dugunerako helikoptero barruan aurkitzen gara. Gure azpian dena pasatzen ikusten dugu, azkarregi gure gustorako. Hainbeste egunetan gure bizilekua izandako lekutik urrunduz goaz. Atzean gelditzen dira Nangpa-La eta Kangchung. Beste erremediorik gabe beherako bidea hartu dugu, eta hilabete lehenago gorakoan zapal dutako bideak begiez jarraitzen ditugu. Helikopteroak motore zarata beldurgarria ateratzen duenez hitzegitea ezinezkoa da eta horrela hasierako egun haietan bizitako gogorapenetan galtzen naiz.



Amaia Arantzabal con la ascensión al Cho Oyu, de 8.201 metros, ha sido la primera mujer vasca en un ochomil. En la fotografía superior, Amaia juega con un niño de rasgos tibetanos en un alto de la marcha de aproximación. Abajo, Josu Bereziartua y Amaia Arantzabal ante la pirámide del Cho Oyu.



"Gorakoan, Everestera zihoan jendearekin batera gindoazela, espedizio hasierako ametsak, ilusioak, beste urtetako esperientziak konpartitu genituen. Bederatzi lagun gogoz beteak ginen, hurrengo asteek ekarriko zigutenaren egarriz. Gero Namchera iritsitakoan bideak banatu egin ziren, desio hoberenak opatuz elkarri umore onean agurtu genuen. Horrela gure bakartasunean eguraldi txarra izango genuen lagun Cho-Oyuko Kanpamendu Baseraino".

Orain, helikoptero leihatilatik begira nagoelarik oso ederra iruditzen zait Kanpamendu Baseraino eramaten duen glaziarra. Igotzerakoan aterki azpian beti, gauza gutxi ikusteko aukera izan bait genuen. Bailara zabala izan arren, helikopteroa alboko malden bila doa, nere lasaitasunerako gehiegi hurbilduz.

Tartean behin pilotoak guregana bueltatzen du burua keinu batez ondo al goazen galdetuz. Nik parre batez baietz egiten diot, baina irriparrak ez du izkutatzen nere urduritasuna - hau tartana zaharra! - pentsatzen dut nereko. - Gutxienez bailara erditik joango balitz mendietara hainbeste hurbil dudarik! - pentsatzen dut nere ezjakintasunean.

Orain, nahi genukeen baino azkarrago beheraka goaz, baina oroimen ederrez beterik jeisten gara; tibetanoen ustegabeko bisitak, Kanpamenduko umore ona, eta hori bai, danaren gainera han geunden guztien ondo pasatzeko gogoia. Eta Cho-Oyu mendia, zailtasunik gabekoa, baina handia, hori bai, 8.000 metro ZORTZI MILA direla!

"Tontorrera abiatu ginen eguna luze Joan zitzaigun. Egun hartako haizeak, elur bigunak eta denboraldiko lehen igoera izateak dakarten gogortasuna, guretzat irailak 17ko eguna bederatzi orduko bide luze bilakatu zen. Helmuga non zegoen jakin gabe bidea eginez gindoazen, Josuk besoak altxatuta eta bastoiak airean zituela ikusi nuen arte. - Hau poza! Everest ikustera iritsi da - pentsatu nuen - tontorrean gaude.

Bere pausoen atzetik nindoan, baina Josuk ibiltzen jarraitzen zuela ikusten nuen. Noiz demonio gelditu behar zuen galdetuz nindoan garraxiez, baina haizeak eramaten



Fotos: Josu Bereziartua

zuen nere galdera eta erantzunik gabe gelditu nintzen. Eta iritsi ginen, benetan mendi zabala da baina zailtzarik gabe tokirik altuenean geunden, gure atzean munduko erraldoia agertzen zen. Aurreko urtean mendi horren magaletan bizitakoa gogoratzin nuen eta Josu begiratzin dut, egun gutxi barru han izango bait da.

- Zer Josu? Zer moduz ikusten duzu? - esaten diot.

- Elur gutxi ikusten da - esaten dit Chomolugmatik begiak kendu gabe - agian aurreko igoerak aurreratu egingo dira.

- Sasoiz zabilta!

Nepal aldera begirada mendi artean galdetzen da, Tibet aldean berriz lautada lehorra zabaltzen da. Ordu erdi batez makurtuta gelditu ginen haizearengandik ezin babestu, Joxeren zai geunden bitartean. Joxe ez zen ailegatzin, ikusi nuen azken aldiaren atsedena hartzen ari zen motxila gainean eserita, ez nuen zalantzarik izan jarraituko zuenik, baina hori orain dela denboralditxo bat izan zela gogoratu nuen. Ez zetorrela ikustean, guretzat ere jeisteko ordua heldu zitzaigula erabaki genuen, han goian hotza zegoen.

Denboraz ondo geunden eta arazorik gabe jeitsi ginen. Hirugarren Kanpamendura iritsi eta Joxe heldu berri zela ikusi genuenean lasaitu ginen.

Gero etorri zen sustoa. Hotza nuen oinetan eta denda barruan Josuk lagundu zidan botak kentzen; bere begietan ikusi nuena ez zitzaidan gustatu, zerbait gaizki zihoan. Kongelazioekin jeitsi nintzen, kaltea egina zegoen momentu horretan jeistea besterik ez zen gelditzen. Hurrengo egunean naparrerekin gurutzatu ginen, gurea bukatuta zegoen, orain beraien txanda zen.

Helikopterotik Langura Pass ikustean nere pentsakizunetatik atera egiten naiz. Aurrean dugun 3.500 metroko lepoa nola demontre gaudituko dugun galdetzen diot nere buruari. Helikopteroaren dardara handituz joango da altura hartzen doan neurrian, baina azkenean lortu du. Pilotoak lasai berriketan doaz baina atzean goazenok izerdi hotzez gaude.

Laister Kathmandun izango gara eta bidai azkar hau asimilatzeke denbora izan baino lehen Zaragozako hospitaleko ohean egon-

Después de una larga ascensión, la cima del Cho Oyu es como una inmensa planicie desde la que, al otro lado, todo cae hasta el inmediato Everest.

go gara. Azken hilabete honetan egindako bidea azkarregi desegiten ari gara, gure buruek ez dute jarraitzen atzerakako erretimoa eta han nonbait galduta gelditu dira, goian utzi dugun lagunen pausoak imaginatzen, eta horrela jarraituko dugu egunetan.

Oraingoan prezio garestia ordaindu behar izan dugu, eta kongelazioak berak baino okerrago beren ondorio zuzena egingo zaigu gogorra, inaktibitatea hain zuzen. Hala ere gaurko egoera ez da soilik aurreko abenturaren amaiera, orain itxaroten digun egonaldi luzeak hurrengo abentura baten hasiera ere izatea dauka. ■

FICHA TECNICA

Expedición: Guipuzcoana al Cho Oyu

Componentes: AMAIA ARANTZABAL, JOXE URBIETA Y JOSU BEREZIARTUA.

Después de la instalación del Campo Base a finales de agosto, los tres alpeñisarras inician la ascensión del Cho Oyu. Sin más contratiempos alcanzan el 16 de setiembre el último campo. Amaia Arantzabal y Josu Bereziartua logran el 17 de setiembre alcanzar la cumbre; Joxe Urbieto («Takolo») quedaría a muy poca distancia de la cima retornando por problemas de aclimatación.

Amaia Arantzabal es la primera mujer vasca en ascender un ochomil.

RESUMEN

MIENTRAS espera la llegada del helicóptero que le bajará a Kathmandu, Amaia hace un repaso de las vivencias de estos últimos días. El precio que va a tener que pagar es muy alto, por las propias congelaciones y por la inactividad, pero compensa por el rato pasado en la cumbre del Cho Oyu, en compañía de Josu, unos días antes de que Pili y Jose repitan la ascensión.